



II.ERANSKINA

ESEP 2014-2017 BALORAZIOA

ESEP 2014-2017 EGITASMOAREN BALORAZIOA

Elgoibarren Euskara Sustatzeko 2014-2017 ekintza planean hiru helburu estrategikoei eta bi zehar-lerroei loturiko neurri-ekintzak burutu dira, 16 esparrutan sailkatuta. Hona hemen **ekintzen betetze maila**:

URTEA	EKINTZAK	BETETZE MAILA
2014	52	% 92,30
2015	65	% 92,31
2016	65	% 93,85
2017	58	% 93,10

LEHENETSITAKO ESPARRU ETA HELBURUAK

2014-2017 planerako, Udalak, EMUNen aholkularitzarekin, antolaturiko parte-hartze prozesuan, ondorengo esparru eta helburu estrategikoak lehenetsi ziren:

EUSKARAREN TRANSMISIOA

- Guraso euskaldunak transmisioaren garrantziaz kontzientziaztea eta eredu bihurtzea.

EUSKARAREN ESKOLAZ KANPOKO ERABILERA

- Haur, nerabe eta gazteen eskolaz kanpoko erabilera eragitea.

AISIA, KIROLA ETA KULTURGINTZA

- 5-20 urtekoen eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz bermatzea.
- Helduentzako aisialdiko euskarazko eskaintza handitzea.

ARLO SOZIO-EKONOMIKOA: LAN-MUNDUA, OSTALARITZA ETA MERKATARITZA

- Merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera gehitzea.
- Enpreetan euskararen erabilera handitzea.

EUSKARAREN ONDAREA ETA IKERKUNTZA

- Elgoibarko ondarea (berbetia, toponimia, ahotsak) herrira zabaltzea.
- Kultura ondarean lanean diharduen jendea/elkarteak biltzea eta lanak bateratzea.

HELURU HORIEK LORTZEKO ANTOLATURIKO EKINTZA ETA EGITASMOAK

2014-2017 planean lehenetsitako helburu estrategiko horiek lortze aldera, ondorengo ekintzak eta egitasmoak burutu dira.

EUSKARAREN TRANSMISIOA

* **Guraso euskaldunak transmisioaren garrantziaz kontzientziatzea eta eredu bihurtzea.**

Zer landu du Udalak ikastetxeekin:

- 2014tik 2016ra bitartean, Udalak EBETE hizkuntza-zerbitzuen aholkularitza jaso zuen eskoletako gurasoak kontzientziatzeko (hitzaldi bidez) eta irakasleak eragile izateko formazio saioak eskainiz, ikasleek jarreretan eragiteko estrategiak landuz. Gurasoekin bilerak egiteko orduan, elebitasunaren onurak azaltzeko lagungarri izango zaien eskuorria ere banatu zaie irakasleei.
- Euskararen erabilera sustatzeko ekintzak LHko eskolen ohiko funtzionamenduan txertatzeko aholkularitza ere jaso zuten eskolek.
- Gurasoengan eragitetik gurasoak eragile izan daitezen urratsak ere eman ziren 2014an eta 2015ean. Guraso euskaldunei formazio saioa seme-alaben hizkuntza-ohituretan eragitera begira proposamen zehatzen dokumentu bat ere banatu zitzairen. Guraso erdaldunei begira hiztegi bat prestatu eta banatu zitzairen, euskarazko esaldiak erabiltzera begira.
- Eskoletako gurasoen euskara batzordeak sortzeko urratsak ere eman ziren. Hemen Elgoibarko Izarrak ere jardun zuen eragile lanean.

Zer landu da euskaltegiekin:

- **Euskara ikastaroen berri emateko eskuorria gurasoentzat:** Irailean, euskaraz ez dakiten gurasoei euskara ikastera animatzeko eta euskaraz dakitenei alfabetatzera animatzeko ikastaroen eskaintza egiten die Udalak euskaltegiekin elkarlanean. Helburua 0-12 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoak euskara ikastera edo sakontzera animatzea. Gutxi izan dira animatu diren gurasoak, beraz, ohiko taldetan aritu dira eta ez da gurasoz osaturiko talde homogeneorik sortu.
- **Ohiko ikastaroak egiteko diru-laguntzak eta beka:** 0-12 urte bitarteko haurrak dituzten gurasoek matrikularen erdia ordaintzen dute Elgoibarko euskaltegietan, eta halaber, ikasturte bukaeran beka lortzeko aukera ere izaten dute horretarako ezarritako baldintzak betez gero.
 - * **Euskara ikasteko diru-laguntzak:**
Udalak laguntza ekonomikoak ematen ditu euskara ikasteko. Diru-laguntza horiek euskaltegien bitartez tramitatzen dira.
Gurasoek (12 urte arteko seme-alabak dituztenak), ikasleek, langabetuek, pentsiodunek eta jubilatuek matrikula erdia ordaintzen dute.
Beka: hainbat baldintza betez gero, ikasturte bukaeran ordaindutako matrikularen %50 itzultzen zaio ikasleari. Bete beharreko baldintzak:
 - Ikasturtea amaitzea
 - Asistentziaren % 80 betetzea
 - Gutxieneko aprobetxamendua izatea ikastaroan zehar
- **AISA ikastaroak:** Guraso etorri berriei AISA ikastaroa eskaintzen zaie. Aipatzekoak dira azken urteotan sortu diren AISA taldeak. **AISA ikastaroak** euskarara hurbiltzeko harrera-ikastaroak dira, herrian bizi diren etorri berrientzat diseinatutakoak bereziki. Udal Euskaltegiak Udalaren Euskara eta Ongizate sailekin elkarlanean antolatu ditu Aisa ikastaroak eta 2015-16-17 urteetan 114 etorri berri aritu dira AISAn euskara ikasten.

- **Gurasolagun: Tertuliak egitasmoan 45 lagun inguru aritzen dira urtero baina** gurasoz bakarrik osaturiko mintzalaguna taldeak egiteko saiakera egin da eta ez da lortu.

Zer landu da Udalak Elgoibarko Izarrarekin sinatua duen hitzarmenaren baitan:

- Tertuliak egitasmoan, gurasoz osaturiko **mintzalaguna taldeak** sortzeko saiakera egin zen baina ez zen bereziki gurasoz bakarrik osaturiko talderik lortu.
- Familia transmisioa sustatzeko **Kiribilduz egitasmoaren** baitan, gurasoak hurrekin euskaraz aritzeko saioak, tailerrak, irteerak eta ikuskizunak antolatu dira.

Zer landu da Udaletik:

- **Euskarazko produktuen katalogoa:** Gabonetan opariak euskaraz egiteko katalogoak banatzen ditu Udalak eskoletan, gurasoek euskarazko liburu, DVD, jolas eta abarren berri izan dezaten. Jolas hezitzaileen erakusketan ere euskarazko jolasak sustatzen dira.
- **Ahotsak ikasgelan** egitasmoa: 2015ean, batu zen Elgoibarko Udala “ahotsak ikasgelan” proiektura, eta bi urtean oso lanketa politak egin dira Herri Eskolan eta Ikastolan. Elgoibarren adineko batzuk grabatu zituen Badiharduguk, bertako kanta eta jolasak jasotzeko. Ahalegin horren emaitza da 15/16 ikasturtean eta 16/17an **Herri Eskolako eta Ikastolako HHko ikasleekin** egindako kantu-jolasen grabazioak eta Ikastolako DBHko ikasleek egindako ipuinen kontaketa. Guztira, 20 bideo jarri dira sarean ikusgai: 8 kantu-jolas, 5 jolas, 4 abesti eta 3 ipuin, fitxak ere daude jolas-kantuen informazio osagarriarekin.
- **Jira Bueltan liburuxka-DVDa:** 2017an Debarroko beste 3 udalekin batera, Jira Bueltan liburuxka-DVDa argitaratu du Udalak. Adinekoen testigantzak kontuan izanda, umeak kantuan eta jolasean grabatu ditu, eta ikus-entzunezkoa sortu, adinekoen eta umeen grabazioak batuta. Jira Bueltan liburuxka-DVDa ikastetxeetan banatu du Udalak, Lehen Hezkuntzako I. mailan, hain zuzen. Hori bai, aisialdian erabiltzeko ere oso aproposa da, guraso zein hezitzaileentzat. Bilduma hauen xedea da haurrak eta gurasoak elkarrekin euskaraz jolastea eta abestea, eta aldi berean, euskarazko jolasak eta kantak hedatzea eta gizarteratzea, hau da, euskara normalizatzeko tresna bilakatzea. Horiek horrela, Liburuxka-DVD honetan, haur txikientzako jolasak eta abestiak daude, hala nola, sehaska kantak, esku jolasak, magalean abesteko kantuak, dantzak, biribilean egiteko jolasak, besoetan kantatzekoak...
- **Haur jaioberrien gurasoak kontzientziatzeko euskarriak:** Udalak haurra izan berri duten gurasoei zuzenduriko kanpaina antolatzen du urtero, hizkuntzaren transmisioan gurasoek duten garrantziaz jabeturik. Kanpaina honen baitan erabiltzen diren euskarriak:
 - **Gutuna:** haur jaioberriarengatik zoriontzeko eta euskara erabiltzeko edota ikasteko aholkua emateko. Udalak, bidenabar, euskara ikasteko diru-laguntzak ematen dituela gogorarazten du gutunaren bitartez.
 - **Biorrikoa:** gurasoen hizkuntza gaitasuna kontuan harturik, hiru mezu ezberdin zabaltzen dira: lehenengoa, guraso euskaldunei zuzendutakoa;

bigarrena, guraso erdaldunei zuzendutakoa; eta hirugarrena, guraso mistoei zuzendutakoa.

- **“69 abesti jolasteko”** bildumaren Cda oparitzen zaie lehen haurra izan duten gurasoei eta **“Txantxariak” Euskal Jolasen Bilduma** bigarren haurra dutenei.

- 2016tik aurrera, **HAZI HEZI** aldizkariaren ale berezia eta urtebeterako harpidetza ere oparitzen zaie haur jaioberriaren gurasoei.

EUSKARAREN ERABILERA: AISIA, KIROLA ETA KULTURGINTZA

- **Haur, nerabe eta gazteen eskolaz kanpoko erabileran eragitea.**
- **“NOLA ERAGIN HAUR ETA NERABEEK EUSKARAZ EGIN DEZATEN?” Jardunaldia.** Haurren eta nerabeen euskararen erabilera areagotzeko klabeak aztertzeko jardunaldia antolatu zuen 2014ko azaroan Elgoibarko Izarra elkarteak, Udalarekin propio sinatutako hitzarmenaren bidez finantzatuta. Herriko ekarpenez eta testigantzez gain, Euskal Herriko hainbat adituk hartu zuten parte.
- Elgoibarko Izarrak Udalarekin urtero sinatzen duen hitzarmenaren baitan ondorengoak burutu dira:
 - EBETEren aholkularitzaren laguntzaz, 2015ean, gazteak eurak eragile izateko Ikasleen Euskara Batzordeak antolatu ziren Ikastolan eta Institutuan. Horrela, goi mailetakoak behekoen eragile bilakatu dira.
 - Elgoibarko Izarrarekin lanean ari diren hezitzaileek formazio saioak jaso dituzte, eta saio horietan euskararen erabilera areagotzeko estrategiak ere landu dira.
 - Berbazulo egitasmoa: euskararekin zailtasunak dituzten haur etorri berriei zuzenduriko saioak, betiere, modu ludikoan planteatzen direnak.
 - Euskal gazte eragileak/erreferenteak agerian jarri edota ezagutzera ematea. Saioak antolatzen dira ikasturtero DBHn eta Batxilergoan.
 - Euskararekiko motibazioa lantzeko saio bereziak antolatu dira eskoletan.
- **5-20 urtekoen eskolaz kanpoko jarduerak euskaraz bermatzea.**
 - Elgoibarko Izarrak eta Udalak sinaturiko hitzarmeneko “Gurean Bai: eskola orduz kanpoko jardueretan eragiten” egitasmoaren baitan, eta EBETE hizkuntza aholkularitzaren laguntzarekin, landu da helburu hau.
 - Elkarte eta antolatzaileengana joan aurretik, 2015ean, egitasmoa haur eta gazteen hizkuntza-ohiturekin arduratuta dauden entitateei aurkeztu zitzairen: ikastetxeak eta guraso elkarteak. Hauek egoki baloratu zuten egitasmoa.
 - Egitasmoaren helburua gure herrian haur eta gazteei eskaintzen zaizkien jarduerak euskaraz izatea, eta horretarako, antolatzaileek hezitzaile euskaldunak jartzea. Hezitzaileei jarduerak euskaraz dinamizatzea eskatu zaie, eta horren jarraipena antolatzaileek egitea.

- Lehentasunezko elkarten aukeraketa (musika, dantza eta kirol arlokoak) bat egin zen eta guztiekin bilerak egin ziren. Galdetegi bat bete zuten informazio zehatza lortzeko: kideak, taldeak, hezitzaileen perfilak, hizkuntza irizpideak...
 - Hezitzaileei jarduerak euskaraz dinamizatzeko baliabideak eskaini zaizkie, eta entrenatzaileei zuzenduriko formazio saioa ere antolatu da.
 - Kirola Euskaraz egitasmoaren baitan, 2014urtean, futboleko eta eskola kiroleko ari ziren entrenatzaileei zuzenduriko ikastaroa antolatu zen, ume-gazteekin aritzerakoan hainbat balore lantzeko, tartean, euskara. Bestelako ikastaroak ere antolatu dira euskaraz kirol hezitzaileei zuzendurikoak.
 - Udalak Soziolinguistika Klusterrarekin aldiro egin ohi duen neurketaren baitan, kirol nagusien entrenamenduetako erabilera neurtu da 2017an. Eskola kiroleko, eskubaloiko eta futboleko entrenamendu batzuk neurtu dira, eta adin-tartea 8-13 urte. Emaitzen aurkezpen orokorraz gain, kirol horietako arduradunei ere banan-banan aurkeztu dizkiete emaitzak Udalak eta Elgoibarko Izarrak. Biler horietan antzeman ziren euskararen erabilerari begira dauden gabeziak eta hobetu beharrak.
 - Atxutxiamaikaren asialdi egitasmoan euskararen erabilera sustatzen da. Aipagarriak dira, bereziki, epealdi honetan burutu diren Kuadrillategi eta Daixola egitasmoak.
 - Udal Kirol Patronatuaren eskaintzan ere bermatuta dago euskararen erabilera haur eta nerabeei zuzenduriko ekintza eta egitasmoetan.
 - Kultura eskaintzari dagokienez, haur eta gazteei zuzenduriko musika, antzerki eta bestelakoak euskaraz antolatzen ditu Udalak. Haurrentzako zinean ere ahalegin berezia egiten du euskaraz dauden filma guztiak herrira ekartzeko.
 - Gotzon Garate Udal Liburutegian euskarazko ipuin kontaketa saioak antolatzen dira.
- **Helduentzako aisialdiko euskarazko eskaintza handitzea.**
 - Udalaren Kultura Sailak antolaturiko antzerki eta musika emanaldietan euskarazkoak areagotzeko saiakera egin da. Zinean ez dago apenas helduentzako filmarik euskaraz, beraz, euskarazkoak estreinatu ahala ekartzen ditugu herrira. Udalak euskaraz antolatzen dituen emanaldien zabalkunde berezia egiten du.
 - Udal Kirol Patronatuaren eskaintzan ere areagotu da euskararen erabilera. 2014an, adibidez, Spinning saioetan euskal musika erabiltzeko saio berezia antolatu zen spinning begiraleentzat, eta euskal musika CD bereziak eskaini zitzaizkien klaseetan erabiltzeko.
 - Gotzon Garate Udal Liburutegian euskarazko irakurketa tailerrak eskaini dira.
 - Udalak eta Elgoibarko Izarrak urrian antolatzen dituzten zikloetan ere euskara eta euskal kultura landu da. Hainbat hitzaldi, ikastaro eta kultur ikuskizun eskaini dira euskaraz.
 - Kale-kantariekin euskal kanta abesteko aukera izaten da hileroko azken ferian.

ARLO SOZIO-EKONOMIKOA: LAN-MUNDUA, OSTALARITZA ETA MERKATARITZA

- **Merkataritzan eta ostalaritzan euskararen erabilera gehitzea.**

- 2017an, Gurean bai Merkataritzza-Ostalaritza egitasmoa jarri da abian Elgoibarko Izarrak Udalarekin sinaturiko hitzarmenaren baitan. Parte-hartzaileen diagnostia egin da eta bezero eta dendarien arteko harremanetan euskararen erabilera areagotzeko ekintzak diseinatu dira. Itzulpen eta zuzenketak egiteko laguntza ere eskaini diete bai Udalak baita Elgoibarko Izarrak ere herriko tabernari eta dendariei.
- Elgoibarko Udalak eta Banaiz Bagara elkarteak, “ostalaritza” sektorean lan egiteko behar den euskarazko gutxieneko komunikazio gaitasuna lortzeko **Euskara Plus** ikastaroa antolatu zuten 2016an eta jatorri ezberdineko hamabost lagun aritu ziren euskara ikasten.
- Udalak urteroko Pintxo lehiaketa antolatzen du ostalaritza sustatzeko eta euskarari esparru horretan sarbidea emateko. Heburua ostalaritzako tabernari eta bezeroek euskara gehiago erabiltzea.
- Udalak ostalaritzan, zerbitzuetan eta merkataritzan euskararen erabilera sustatzeko Gidak argitaratu ditu 2017an eta herriko establezimenduetan banatu ditu Elgoibarko Izarraren laguntzarekin. Helburua Euskararen erabilera errazteko baliabideak eskaintzea. Bi gida izan dira, bata, Ostalaritzako hiztegia, eta bestea, Taberna, Denda eta Zerbitzuetarako erabilgarri den Gida Orokorra.
- Establezimenduko errotilu nagusia eta irudi korporatiboa euskaratzeko diru-laguntzak eta aholkularitza ere eskaintzen ditu Udalak.

- **Enpresetan euskararen erabilera handitzea.**

- 2016ra arte, enpresetako euskara planak abian jartzeko edo garatzeko diru-laguntzak eman ditu Udalak. 2017tik aurrera planak dituzten enpresak laguntzeaz gain, euskara sustatzeko ekintzak ere burutzen dituztenak diruz lagunduko ditu. Helburua enpresa txikiak ere euskararen erabilera gehitzeko urratsak ematea.
- Udalak IMHrekin eta MEKA Lanbide Heziketako eskolarekin hitzarmenak sinatzen ditu urtero hainbat helbururekin: alde batetik, eskola barruan euskararen erabilera sustatzeko, eta bestetik, D ereduan ikasten dutenek lan praktikak euskaraz egiteko. Lan praktikak euskaraz areagotzeko urratsak emateko egitasmoak jarri zituzten abian MEKA eta IMH ikastetxeek, eta AHIZE zerbitzu enpresaren aholkularitza izan dute horretarako.
- IMHri dagokionez, bestalde, GOAZEN egitasmoa ere diruz laguntzen du Udalak eta urtero antolatzen den mintegia. 2016an adibidez, “Hizkuntza-Kudeaketa Enpresan eta Lanbide Heziketan” gaia landu zen urriko mintegian.

- Udalak eta IMHK, “industria” sektorean lan egiteko behar den euskarazko gutxieneko komunikazio gaitasuna lortzeko **Euskara Plus** ikastaroa antolatu zuten 2017an eta bost lagun aritu ziren euskara ikasten lan arloan.

EUSKARAREN ONDAREA ETA IKERKUNTZA

- **Elgoibarko ondarea (berbetia, toponimia, ahotsak) herrira zabaltzea.**
 - Elgoibarreraz.eus atariaren diseinua, aurkezpena eta zabalkundea egin da.
 - *Elgoibarko Ahotsak* egitasmoaren baitan, www.ahotsak.eus/elgoibar helbidean 86 hizlariren ahozko jarduna dago jasota, 1.506 pasarte, 130 audio eta bideoan 772 pasarte inguru. Elkarrizketa horiek guztiak sarean egoteaz gain, barren.eus atarian ere jartzen dira ikusgai, Udalak xede horretarako ematen duen diru-laguntzari esker.
 - Udalak urrats bat gehiago eman nahi izan du eta jasotako **material hori hezkuntzara bideratzeko ahalegina** ere egin du herriko ikastetxeekin batera. Ahalegin horren emaitza da 15/16 ikasturtean eta 16/17an **Herri Eskolako eta Ikastolako HHko ikasleekin** egindako kantu-jolasen grabazioa eta Ikastolako DBHko ikasleek egindako ipuinen kontaketa. Guztira, 20 bideo jarri dira sarean ikusgai: 8 kantu-jolas, 5 jolas, 4 abesti eta 3 ipuin. **Bideoak ikusgai** daude www.ikasgelan.ahotsak.eus/elgoibar loturan, eta fitxak ere daude jolas-kantuen informazio osagarriarekin.
 - Egitasmoari jarraipena eman nahirik, 2017an, Debarroko beste 3 udalekin batera, Jira Bueltan liburuxka-DVDa argitaratu du Udalak. Adinekoen testigantzak kontuan izanda, umeak kantuan eta jolasean grabatu ditu, eta ikus-entzunezkoa sortu, adinekoen eta umeen grabazioak batuta. Bilduma hauen xedea da euskaraz jolastea eta abestea, eta aldi berean, euskarazko jolasak eta kantak hedatzea eta gizarteratzea, hau da, euskara normalizatzeko tresna bilakatzea.
- **Kultura ondarean lanean diharduen jendea /elkarteak biltzea eta lanak bateratzea.**
 - 2014an, gure herriko euskarazko ondarea jasotzeko beka jarri zuen abian Udalak. Bekaren emaitza elgoibarreraz.eus ataria izan zen eta 2015ean jarri zen abian. Helburua herriko euskararen ondarea web-atari batean biltzea izan da (Elgoibarko euskara, Toponimia, Paleotoponimia, “Ahotsak” ahozko ondarea, Kronika zaharrak eta Elgoibartarren esanetan ...) arloka sailkatuta, eta webgune guztiak elkarren artean lotuta, edukien arteko loturak eginez. Modu honetan, klik bakarrean, herriko euskararen ondarea eskura dugu elgoibartarrok.

ESEP 2014-2017an LANDUTAKO NEURRI-EKINTZA GUZTIAK

Planaren hurrengo atal honetan hiru helburu estrategikoei eta bi zehar-lerroei loturiko neurri-ekintzak jasotzen dira, 16 esparrutan sailkatuta. Hona hemen gure herrian Udalak antolaturik edo diruz lagundurik, 2014-2017 bitartean burutu direnak.

1. Familia bidezko transmisioa

1.1. Sentsibilizazioa eta motibazioa etengabe lantzea

1.1.4. Gurasoei euskara eta euskal kulturari lotutako produktuak ezagutarazi eta eskura jartzea.

- **HAUR JAIÖBERRIEN GURASOENTZAKO ESKUORRIA ETA OPARIA**
- **EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA**
- **KANTU-JOLASEN LIBURUXKA ETA DVDa**

1.1.7. Bikote euskaldunen zein mistoen kasuan, seme-alabekiko hizkuntza jokabideak lantzea.

- **EUSKARAZKO JOLASEN EDOTA KANTUEN IKASTAROA**
- **EUSKARA IKASTAROEN ESKUORRIA**

1.3. Familia barruan euskararen erabilera sustatzea

1.3.1. Eskolatik kanpo zein eskolan bertan ere gurasoek eta umeek euskara erabiltzeko guneak sortzea eta elikatzea.

- **KIRIBILDUZ EGITASMOA**

2. Irakaskuntza

2.2. Euskarazko ikasketen eskaintza sendotzea

2.2.1. Lanbide heziketan euskarazko eskaintza indartzea, horretarako irakasleen prestakuntza hobetuz eta ikasmaterialak eskainiz.

- **Lanbide Heziketako IMH ikastetxearen GOAZEN euskara plana**
- **Lanbide Heziketako MEKA ikastetxearen EUSKARA PLANA**

2.4. Euskararen erabilera soziala hezkuntza esparruan aztertu eta bultzatzea

2.4.4. Irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietarako euskara harreman hizkuntza gisa bultzatzea (bestelako jardueren egitarau eta programa zehatzen bitartez)

- **AHOZKOTASUNA-BERTSOGINTZA EGITASMOA ESKOLETAN**
- **ESKOLETAKO EUSKARA-PLANAK**

2.5. Ikastetxearen eta haren ingurune hurbilaren arteko euskarazko harremanak sustatzea

2.5.2. Lan-munduarekiko zubiak eraikitzea, euskarazko praktikak areagotuz eta lankidetzatza proiektuak bultzatuz.

- **LAN PRAKTIKAK EUSKARAZ AREAGOTZEKO DIRU-LAGUNTZAK**

2.6. Ikasle etorkinak euskarara hurbiltzeko programak diseinatu eta garatzea

2.6.2. Kanpotik etorritako gurasoei informazioa eta laguntza emateko programak garatzea sentsibilizazioaren mesedean.

- **AISA IKASTAROAK etorri berrientzat**
- **BERBAZULO egitasmoa**

3. Euskalduntze eta alfabetatzea

3.3. Finantzazio sistema egonkor bat ahalbidetuko duten aukerak landu eta abian jartzea

3.3.1. Finantzazio egonkorrarekin loturik, euskalduntze prozesuan aldatzen doazen premiei malgutasunez erantzuteko sistema bat eratzea.

- **UDAL EUSKALTEGIAREN FINANTZAZIOA**
- **Elgoibarko AEK EUSKALTEGIARI DIRU-LAGUNTZA**
- **AEK EUSKALTEGIARI LOKAL BERRIA**

3.8. Gelaz kanpoko egitasmoak sustatzea, erabilera eta praktika uztartuko dituztenak

3.8.2. Mintzapraktika egitasmoak (Mintzalagun, Berbalagun, Gurasolagun) zabaltzea.

- **MINTZALAGUNA** egitasmoa

4. Administrazioa (Esparru hau Udaleko Erabilera Planean lantzen da)

6. Arlo sozio-ekonomikoa

6.4. Enpresen jardunean hizkuntza-irizpideak ezartzeko pausoak ematea

6.4.2. Kanpoko irudian, idatzizko zein ahozko komunikazioan eta adierazpen publikoetan euskararen presentzia bermatu eta sustatzea.

- **ERROTULU NAGUSIAK ETA IRUDI KORPORATIBOA EUSKARAZ jartzeko diru-laguntzak**
- **PINTXO LEHIAKETA** euskaraz
- **MERKATARITZAN** eta **OSTALARITZAN** euskararen erabilera bultzatzeko laguntza eskaintzea
- **MERKATARITZA, OSTALARITZA ETA ZERBITZUETARAKO GIDAK-HIZTEGIAK**

7. Aisia eta kirola

7.1. Aisialdiko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera indartzea.

7.1.1. Euskarazko jarduerak bultzatzea bereziki haur eta gazteei zuzendutako ekintzetan.

- **GAZTELEKUA** eta **LUDOTEKAREN** kudeaketa
- **GUREAN BAI: ESKOLA ORDUZ KANPOKO JARDUERETAN ERAGITEN**
- **ATXUTXIAMAIIKA** aisialdi egitasmoa

7.1.3. Aisialdiko eskaintza modu zabalean ulertuz (zinema, antzerkia, literatura, telebista, musika, etab.), euskarazko ekimenak adin tarte guztietako herritarrei zuzentzea.

- **HELDUEI ZUZENDURIKO KULTURA ESKAINTZA EUSKARAZ**

7.3. Aisialdiko ekimenetan erabiltzen den euskararen kalitatea zaintzea.

7.3.1. Haur eta gazteentzako antolatzen diren ekitaldietan, euskara kalitatezkoa dela bermatzea (bai ekitaldia, bai artisten/begiraleen euskararen ezagutza eta erabilera)

- **BEGIRALE-HEZITZAILE EUSKALDUNEN FORMAZIOA**

7.8. Kirolaren esparruko jardueretan euskararen presentzia eta erabilera sendotzea.

7.8.2. Herri edota hirietan kirol-arloan diharduten kolektiboekin lankidetzaren protokoloak bultzatzea, entrenatzaile, begirale, irakasle, arbitroen hizkuntza-trebakuntza antolatze eta kirol-ekintzetan euskararen presentzia bermatzeko uneoro.

- **KIROLA EUSKARAZ** egitasmoa

7.8.4. Entrenatzaileak trebatzeko eta horientzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak antolatzea.

- **Entrenatzaileak euskaraz trebatzeko ikastaroak antolatzen dira Kirola Euskaraz egitasmoaren baitan.**

7.9. Euskal herritarrentzat kirolaren eremuan erakargarriak diren jarduerak, ekintza eta zaletasunetan euskarazko eskaintza areagotzea eta horren eskaera sustatzea.

7.9.2. Erakundeekin laguntzarekin antolatzen diren kirol ekitaldi garrantzitsuenetan euskara komunikazio hizkuntza izan dadin bermatzea.

- **Erakundeekin laguntzarekin antolatzen diren KIROL EKITALDI GARRANTZITSUENETAN EUSKARA** ere komunikazio hizkuntza izan dadin bermatzea.

8. Liburugintza

8.1. Irakurzaletasuna bultzatzea.

8.1.4. Herri liburategietan euskarazko liburuen presentzia bermatzea.

- **LIBURUTEGIKO MARRAZKI ETA IPUIN LEHIAKETA**

9. Kulturgintza

9.1. Euskarazko kulturaren kontsumoa bultzatzea

9.1.3. Haurrei eta gazteei zuzendutako kultura ekoizpenak lehenestea.

9.2. Euskarazko sorkuntza sustatzeko neurriak hartzea.

9.2.3. Euskarazko sorkuntza bultzatzeko egitasmoak (sariak, lehiaketak...) abian jartzea edo indartzea.

- **EUSKAL KANTUEN SAIOAK-KALE KANTARIAK**

- **TAUPADA** antzerki taldeari diru-laguntza

- **BEINKE BERTSO ESKOLA**

9.4. Euskarazko kultura produktuen zabalkunde egokia egitea.

9.4.1. Sarean kultura agenda eguneratu eta erakargarria izatea.

- **KULTURA AGENDA** sarean

9.4.3. Euskarazko kultura ekoizpenen sustapenean hedabide publikoen papera indartzea.

- **UDAL ALDIZKARIA**

10. Publizitatea

10.2. Herri-administrazioen euskarazko publizitatea hedabideetan argitaratzea.

10.2.1. Arlo guztiei buruzko publizitate instituzionala euskaraz ere txertatzea, euskarazkoetan ez ezik gaztelaniazko hedabideetan ere.

- **Arlo guztiei buruzko publizitate instituzionala euskaraz ere txertatzea, euskarazkoetan ez ezik gaztelaniazko hedabideetan ere.**

11. Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea

11.3. EAEko toponimia eguneratu, osatu, ofizializatu eta zabaltzea.

11.3.4. Hizkuntza-paisaia zaintzea, leku berriei izena jartzeko orduan edota jarrita dauden izenak hobetzeko aholkularitza-bideak jarritz.

- **Hizkuntza-paisaia zaintzea, leku berriei izena jartzeko orduan edota jarrita dauden izenak hobetzeko aholkularitza-bideak jarritz.**

11.3.5. Toponimia ofiziala eta zuzenaren erabileraren jarraipena egitea eta, berau erabiltzearen garrantziaz jabetzeko, kanpainak egitea (ikastetxeetan, erakunde ofizialetan, hedabideetan), eta ikasmaterialak eta jokoak prestatzea.

- **Toponimia ofiziala eta zuzenaren erabileraren jarraipena egitea eta, berau erabiltzearen garrantziaz jabetzeko, kanpainak egitea (ikastetxeetan, erakunde ofizialetan, hedabideetan), eta ikasmaterialak eta jokoak prestatzea.**

11.5. Adierazkortasuna zaindu eta indartzeko neurriak hartzea

11.5.1. Tokian tokiko euskalkiak zaindu eta euskara batuarekiko zubiak lantzea, euskalkietan bizirik dauden egiturak eta erregistro ezberdinak kontuan hartuz.

- **AHOTSAK EGITASMOA GIZARTERATZEA**

- **AHOTSAK IKASGELAN: GRABAZIOAK ETA JASOTAKOA GIZARTERATZEA**

11.6. Euskararen kalitatea zaintzea.

11.6.3. Euskarazko kartel eta errotuluetan erabiltzen den euskararen zuzentasuna bermatzeko bideak jartzea.

12. Hedabideak

12.5. Hedabideen ezagutza, hedapen soziala eta erakargarritasuna bultzatzea.

12.5.3. Hedabideen arteko elkarlan-egitasmoak bultzatzea, haien bideragarritasuna indartzeko eta gizarte-eragina handitzeari begira.

- **BARREN** astekaria

13. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak

13.2. INTERNETen euskarazko edukiak sustatzea.

13.2.7. Sare sozialetan euskararen presentzia areagotzeko bideak erraztea.

- **BARREN.EUS ATARIA**

14. Sentsibilizazioa eta motibazioa

14.1. Euskara balio positiboekin eta modernitatearekin lotzeko ekimenak garatzea.

14.1.3. Gazteengan eragitea adin talde horietarako erreferente diren pertsonetan oinarrituta eta bide telematikoak lehenetsiz. Euskaraz egiten diren ekitaldietarako abantailak eskaintzea.

- **PERTSONA ERREFERENTEAK (Nerabeen Plan Integrala)**

14.1.4. Motibazioaren alderdi guztiak lantzea tailerren edo mintegien bidez: motibazio praktikoa, motibazio sinbolikoa eta motibazio kulturala.

- **NERABEEI ZUZENDURIKO MOTIBAZIO SAIOAK (Nerabeen plan integralaren baitan)**

- **GUREAN BAI JARDUNALDIAK** “Nola eragin haur eta nerabeek euskaraz egin dezaten”

14.1.5. Euskara komunikatiboa sustatu eta zabaltzea, tokian tokiko euskalkiari lekua eginez.

- **BADIHARDUGU euskara elkartearekin hitzarmena**

- **AHOTSAK ikastetxeetan egitasmoa**

14.1.7. Euskararen Nazioarteko Egunaren ospakizunak elkarlanean antolatzea.

- **EUSKARA 365**

- **EUSKARALDIA**

14.2. Familia transmisioa.

14.2.1. Gurasoengan, guraso izango direnengan eta aitona-amonengan eragitea, euskararen familia bidezko transmisioa ziurtatzeko.

- **Euskararen FAMILIA TRANSMISIOA**

14.4. Euskalduntze-alfabetatzea.

14.4.1. Euskara ikasteko sentsibilizazio estrategiak diseinatu eta garatzea.

- **MATRIKULA ORDAINTZEKO DIRU-LAGUNTZAK ETA BEKAK**

- **BARNETEGIETAN EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK**

- **IKASTARO BEREZIAK (UEU, EHU...) EUSKARAZ EGITEKO DIRU-LAGUNTZAK**

14.6. Arlo sozioekonomikoa

14.6.1. Enpresekin eta enpresarien elkarteekin elkarrizketak egitea, euskararen erabilera plana gauzatzeko jarraitu beharreko pausuak zein diren azaltzeko, nola parte hartu, laguntza teknikorako zein aukera dauden, etab.

- **ENPRESETAKO EUSKARA PLANAK SUSTATZEA**

- **EUSKARA PLUS IKASTAROA “INDUSTRIA” ARLOKOA**

14.6.3. Herritarrengan eta merkatari edo ostalariengan eragitea, herritarren hizkuntza hautuari egoki erantzuteko, hizkuntza paisaia zaintzeko.

- **-ERROTULU NAGUSIAK ETA IRUDI KORPORATIBOA EUSKARAZ jartzeko diru-laguntzak**

- **EUSKARA PLUS IKASTAROA “OSTALARITZA” ARLOKOA**

14.7. Aisia eta kirola

14.7.4. Herriko klub eta kirol taldeekiko lankidetza bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.

- **Herriko klub eta kirol taldeekiko lankidetza bultzatzea, euskararen erabileraren normalizazioan ikusten diren gabeziak identifikatu eta elkarrekin garatzeko.**

14.8. Liburugintza

14.8.1. Euskarazko irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak sustatzea.

14.9. Kulturgintza

14.9.1. Kultura elkarteekiko elkarlana sustatzea, haietan euskararen erabilera sustatzeko.

14.9.2. Euskara sustatzeko programa berezietan ikastetxeak ere parte hartzera bultzatzea.

- ZINEA BALOREETAN EUSKARAZ

14.9.5. Herritarrengan eragitea euskal kultura, kondairak eta toponimia ezagutzera emanda: gidak, argitalpen txikiak

- UDAL EGUTEGIA

- UDAZKENEKO HITZALDI ZIKLOA

14.11. Teknologia berriak

14.11.1. Herritarrengan eragitea, batez ere gazteenengan, sarera informazio bila euskaraz ere jo dezaten.

- UDALAREN WEB GUNEAN INFORMAZIOA EUSKARAZ

15. Barruko proiektzioa

15.2. Hizkuntza paisaia euskalduntzea gune euskaldunenetan, hiriburuetan eta baita gune jendetsuetan ere

15.2.1. Kultura edo kirol jarduera jendetsuetan euskarazko komunikazioa (idatzizko zein ahozkoa) bermatzea.

- Nazioarteko Mugertza krosean, Gabon Zaharretako ferian... euskarazko komunikazioa bermatzea.

16. Kanpoko proiektzioa

16.7. Kanpoko proiektzio handia duten ekimenetan hizkuntza irizpideak kontuan hartzea

16.7.1. Zabalkunde handiko ikuskizunetan, kongresuetan edota ekitaldietan euskararen presentzia bermatzea.

- Nazioarteko Mugertza krosean eta Nazioarteko Xake txapelketan euskararen erabilera bermatzea.

17. Bestelakoak

17.1. ESEPen kokatzen ez diren bestelako gastu orokorrak, diru-laguntzak eta egitasmoak

17.1.3. ESEPen kokatzen ez diren ikerketak egitea hizkuntza diagnostikoari, planifikazioari eta abarri buruz.

- GOTZON GARATE II. BEKA: "ELGOIBARRERAZ.EUS" ATARIA

- Euskalgintzako erakundeek, nazio mailakoek, egindako lana diruz laguntzea.

- EUSKARAREN ERABILERAREN KALE-NEURKETA eta KIROL ENTRENAMENDUEN NEURKETA